

HILABETEKO MAPEN AZALPENA

- Hilabeteko batez besteko tenperatura

Eguneroko tenperatura maximo eta minimoen batez bestekoa kalkulatzuz lortzen da.

- Hilabeteko batez besteko tenperaturaren eta batez besteko historikoaren arteko aldea

Temperaturaren batez bestekoak kalkulatu dira estazio bakoitzean, dagoen datu multzo osoa erabiliz, eta aztergai den hilabeteko batez besteko historikoarekin erkatu dira. Balio negatiboek adierazten dute hilabete hori ohi baino hotzagoa izan dela, eta balio positiboek, berriz, beroagoa izan dela.

- Hilabeteko prezipitazioa

Hilabete osoan metaturiko prezipitazioa da, hau da, egun guztietako prezipitazio datuen batura.

- Hilabeteko prezipitazioaren portzentajea, batez besteko historikoaren aldean

Hilabeteko batez besteko prezipitazioen batez bestekoak kalkulatu dira estazio bakoitzean, dagoen datu multzo osoa erabiliz. Portzentajea kalkulatzeko, kasuan kasuko hilabeteko prezipitazioa zati kalkulaturiko batez bestekoa egiten da.

- Laborantza-urtean metaturiko prezipitazioa

Estazioan irailaren 1etik kasuan kasuko hilabetearen azkenera arte, guztira erregistratutako prezipitazioa da.

- Metaturiko prezipitazioaren portzentajea, batez besteko historikoaren aldean

Estazio bakoitzean aztergai den laborantza-urtearen eperako eskura dagoen datu multzoaren batez bestekoak kalkulatu dira. Portzentajea kalkulatzeko, kasuan kasuko laborantza-urteko prezipitazio metatua zati batez besteko balioa egiten da.

- Maiztasun azterketa

Prezipitazioen maiztasunen banaketan oinarrituriko azterketa da. Gainditze-probabilitatea aztertzen da, prezipitazioen ohikotasuna edo ezohikotasuna zehaztu ahal izateko. Estazio bakoitzean, datu multzo osoa harturik, 10, 25, 50, 75 eta 90 pertzentilak kalkulatu dira. Balio horietatik abiatuta honako multzokapen hau egin da gainditze-probabilitatearen arabera:

| | |
|----------------|--------------------------|
| Sailkapena | Gainditze-probabilitatea |
| Oso lehorra | %90etik gorakoa |
| Lehorra | %75-90 |
| Normal-lehorra | %50-75 |
| Normal-hezea | %25-50 |
| Hezea | %10-25 |
| Oso hezea | %10etik beherakoa |

- [Prezipitazio metatuaren maiztasun azterketa](#)

Laborantza-urtean metaturiko prezipitazioaren maiztasun azterketa egiten da, irailaren 1etik kasuan kasuko hilabetearen azkenera arte.

- [Lurzoruko ur erreserba eta soberakina](#)

Ur erreserba eta soberakina ur balantzearen bitartez kalkulatu dira, Thornthwaiteren metodoa erabiliz eta lurrazaleko erreserba 100 mm dela jota.

Defizita duen lehenbiziko hilabetetik aurrera erreserba behera egiten da, eta prezipitazioek ebapotranspirazio potentziala gainditzen duten lehenbiziko hilabetean erreserba berriz hasten da osatzen. Prezipitazioak ebapotranspirazioaren azpitik daudenean, erreserbaren zati bat lurrundu egiten da eta geratzen den erreserba kalkulatzeko formula hau erabiltzen da: $R_i = R_{i-1} * e^{[(P-ETP)/R_{max}]}$. Alderantziz, prezipitazioak ebapotranspirazioaren gainetik daudenean, hilabete amaierako erreserba honako formula honen bidez kalkulatu da: $R_i = R_{i-1} + [P-ETP]$.

Soberakina edo superabita esaten zaio, gehieneko erreserbara iritsi ondoren, drainatze bidez edo lurrazalean barna lerratuz joan badoan prezipitazioari. Hori gertatzen da, bakar-bakarrik, prezipitazioak gainditzen duenean ebapotranspirazio potentzialaren eta erreserba-bariazioaren arteko baturaren emaitza. Soberakinaren zenbatekoa, beraz, prezipitazioaren eta batura horren arteko aldea izanen da.

- [Ebapotranspirazio potentziala Thornthwaiteren arabera](#)

Thornthwaiteren metodoan $ETP = 16 (10 t / l)^a$ formula erabiltzen da ebapotranspirazio potentziala kalkulatzeko. Formula horretan "t" batez besteko tenperatura da, "l" urteko berotasun indizea (hilabeteko berotasun indizeen baturatik lortua), eta "a" urteko berotasun indizean oinarriturik kalkulatuak zenbateko bat. Formula horren bidez lortutako zenbatekoa, latitudeari eta hilabeteari lotutako zuzenketa faktore baten bitartez zuzendu egin behar da.

- [Defizita](#)

Ebapotranspirazio potentzialaren (ETP) eta ebapotranspirazio benetakoaren (ETB) arteko aldea da.